

ARBOLA BAT.



Arbola bat zan oso
 begiragarriya,
 ederrez igualikan
 etzubena iya;
 bere sasoyan indar
 alakoa zuben,
 negurik gaiztoenak
 mellatzen etzuben;
 bañan egun batean
 denborale oso
 gogorra sarturikan
 ark zion eraso;
 eta adar batzubek
 botarik lurrera,
 zerbait okerturikan
 laja zuben bera:
 orduban esan zuben
 —¿zer zait pasa neri?
 ¿nor da onuntz ni onla
 jartzera etorri?
 eta ura pasa ta
 beste denborala
 jaikirik eta ala
 okerka zegoala,
 aizeak emanikan
 bulkaera berrik,
 len bañon okerrago
 jarri zizkan gerrik;

eta andik aurrera
denborak gogortzen
ziran bakoitzean zan
gaizkiago jartzen;
non esaten asi zan
bere burubari;
aundiya da gertatzen
zaidan gauza neri;
on egiten ziraten
len legor, bustiyak,
elurteak, aizeak
eta eguzkiyak,
eta gaur berriz kalte
denbora eztiyak,
eta len on egiten
ziraten guztiyak;
nere indarrak dira
eskastu jau lana!
bañan, ¿zer da ordean
gertatzen zaidana?
eta boz batek zion
eranzun itz ori,
esanaz,—edadia
da zure gaitz ori.—

.

Gizonari au bera
baitzaio gertatzen,
dijoan gisan bere
urteetan sartzen;
edadeak mendian
dubenean artzen,
zer nai gauzak du gaizki
jartzen ta okertzen.

RAMON ARTOLA.

